



REAL SOCIEDAD DE FUTBOLEN ETA REAL
SOCIEDAD FUNDAZIOAREN KODE ETIKOA

Edukia

1. SARRERA	3
2. EREMU SUBJEKTIBOA	3
3. BALIO ETA PRINTZIPIO OROKORRAK	3
4. ENPLEGATUEN PORTAERA	5
4.1.1. Enplegatuen arteko harremana:	5
4.1.2. Abonatu eta akziodunekiko harremana:	6
4.1.3. Behe kategorietako kirolariekiko harremana:	6
4.1.4. Komunikabideekiko harremana:	7
4.1.5. Beste jardun batzuk:	7
5. ENTRENATZAILEEN PORTAERA	7
6. JOKALARIEN PORTAERA	8
7. HORNITZAILEEN PORTAERA	9
8. ARRISKU EGOERAK PREBENITZEKO BARNE NEURRIAK	9
9. INFORMAZIOAREN TRATAMENDUA	12
9.1. Zehaztasuna eta egiazkotasuna:	12
9.2. Konfidentzialtasuna:	12
9.3. Babesa eta segurtasuna:	12
10. INTERES GATAZKA	13
11. USTELKERIAREN AURKAKO POLITIKA	16
11.1. Abantailak eskaintzea eta ematea:	16
11.2. Onurak eskatzea eta onartzea:	16
11.3. Komisioak:	16
11.4. Ekarpen politikoak:	16
11.5. Babesletza:	17
11.6. Dohaintzak:	17
12. REAL SOCIEDADEN JABETZAREN ERABILERA	17
14. DIZIPLINAZKO PROZEDURA	18
15. INDARREAN JARTZEA	19

1. SARRERA

- 1.1. REALA kirol klub bat da, Gipuzkoako gizartean errotze handia duena bere historia eta ibilbidea dela eta. Horregatik, Klubak konpromiso sendoa du etikan, zintzotasunean, errespetuan, erantzukizunean eta eredugarritasunean oinarritutako balio eta printzipioekin.
- 1.2. Kirol erakunde baten kudeaketa egokiak bere jardueran berezkoak diren helburuak lortzeko mekanismoak ezartzea eskatzeaz gain, erabilitako sistemak erabateko errespetua izan behar die lehen azaldutako balio eta printzipioei. REALAK aipatu balioei erantzun behar die, berezkoak baititu bere izaera sozialean eta inspiratzen duten printzipioetan.
- 1.3. Ondorioz, beharrezkoa da Kode Etiko bat egitea, erregulatuko duena eremu materialean entitatearen ekinbidea zer baliok inspiratuko duten eta zein jokabidek egiten duten balio horien aurka.
- 1.4. Kode Etikoa ez da sakona, osoa eta zurruna. Kode honetan jokabide jakin bat espezifikoki aipatua ez egoteak ez du esan nahi halabeharrez etikoa denik, edo ez denik.

2. EREMU SUBJEKTIBOA

- 2.1. Kode honen hartzaileak, nagusiki, REALA eta REAL SOCIEDAD FUNDAZIOA osatzen duten erakundeetan funtzioak garatzen dituzten pertsonak dira, berdin harekiko harremana lanekoa, merkataritzakoa, soziala edo bestelakoa izan. Beraz, adierazpen mailan eta izaera mugatzailerik gabe aplikatuko zaie kirolari, enplegatu, Administrazio Kontseiluko kide, azpikontratutako enpresetako enplegatu, autonomo eta beste kolaboratzaile batzuei.
- 2.2. REALAK modurik egokienenean jardungo du aurrez aipatutako pertsona guztiek Kode Etikoaren edukia ezagut dezaten bermatzeko, eta bertan jasotzen diren betebeharren irismena eta hedapena ezagutzen dutela ziurtatzeko.

3. BALIO ETA PRINTZPIO OROKORRAK

- 3.1 REALA Nazio Batuen Munduko Hitzarmenari atxikitzen zaio argi eta garbi, baita giza eskubideen, lanaren, ingurumenaren eta ustelkeriaren aurkako gaien inguruko hamar printzipioei ere:
 - a) Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala
 - b) Lanaren Nazioarteko Erakundearen Deklarazioa, Lanaren Oinarrizko Printzipio eta Eskubideei buruzkoa
 - c) Rioko Adierazpena, Ingurumen eta Garapenari buruzkoa

d) Ustelkeriaren aurkako Nazio Batuen Konbentzioa

Halaber, Kode honetan ezarritakoaren eraginpeko pertsonen jokabidea balio eta printzipio orokor hauek gidatuko dute, eta portaera eredarria espero da haiengandik. Euren jokabidea printzipio eta balio hauek gidatuko dute:

3.2 Balio etikoak

- 3.2.1. Legezketasuna: Legea betetzea lehentasunezko eta funtsezko mandatua da REALEKO enplegutuentzat. Haien guztiek bete behar dituzte ordenamendu juridikoaren legeak eta araudiak (merkataritza gaietan, lanekoetan, administraziozkoetan eta zergetan), bai eta Kode Etiko honetan ezarritako printzipioak ere. Halaber, enplegatuek ez dituzte izango ikuspuntu etiko batetik gaitzesgarriak izan daitezkeen portaerak, legezko erantzukizunik eduki ez arren.
- 3.2.2. Errespetua eta zintzotasuna: Lana aurrera ateratzeko lanean aritu beharreko edo harremana izan beharreko gainerako enplegatuekiko eta kontseilari, hornitzaile, bezero edo hirugarrenekiko harremanetan errespetua eta zintzotasuna edukitzea.
- 3.2.3. Leialtasuna: REALEKO ordezkari baten edozein jardunek, izan kudeaketa lana edo izan ordezkaritza, soil-soilik REALAREN interesak bilatu behar ditu.
- 3.2.4. Joko garbia: Erabat debeku da partida edo txapelketa bateko emaitza aurretiaz zehazteari begirako edozein jarduni ekitea, prezio, larderia edo akordio bidez. Kirol lehiako iruzurra edo amarrua REALAREN balioen aurka doa guztiz. Hori dela eta, gogortasun handienarekin jazarri eta zigortuko da, dopina barne, kirol errendimenduaren aizuntzea eta kirolarien osasunerako arriskua dakarren heinean.

3.3. Balio profesionalak

- 3.3.1 Taldeko lana: REALAK lankidetzaren eta taldeko lan giroa sustatzen ditu, gaitasun eta baliabide guztiak hobeto aprobetxatzeko. Profesionalak modu aktiboan ariko dira elkarlanean kolektiboki edo globalki REALAREN helburuak erdiesteko. Horretarako, une oro jardueraren jarraipen egokia egiteko beharrezko informazio guztia emango dute, egon litezkeen akats edo ez betetzeak ezkutatu gabe, eta horiek ahal bezain azkar jakinaraziz, konponbidea emateko.

Kirol arloari dagokionez, komeni da nabarmentzea futbola talde kirol bat dela joko zelaitik harago, eta kideetako bakoitzak duen onena eman behar duela taldearen mesedetan. Arau hau taldeari, bere zaleei, hedabideei eta REALARI berari aplikatu dakieke.

3.3.2 Profesionaltasuna: REALEKO profesionalak beren funtzioak profesionaltasunez, zorroztasunez, zuzentasunez eta leialtasunez bete beharko dituzte, bai Erakundeari berari dagokionez, baita berau osatzen duten kideekiko, erakunde publiko eta instituzionalekiko, eta REALAK bere jarduera esparruaren baitan harremana duen zeinahi entitaterekiko ere.

3.3.3 Konfidentzialtasuna: Konfidentzialtasunak REALAK abonatuekin, bezeroekin, hornitzaileekin, erakunde publiko eta instituzionalekin, eta entitate pribatuekin duen harremana konfiantza giroan sortzen laguntzen du, REALAREN ustez. Aipatutako konfidentzialtasuna bermatzeko, bere jardueraren fruitu diren datuen edo informazioaren babes eta erreserba egoki baterako beharrezkoak diren neurriak hartzen ditu REALAK, interes orokorraren defentsan eta horren mesedetan. Sekretu profesionala gorde beharko dute, baita lan harremana amaitu ondoren ere.

4. ENPLEGATUEN PORTAERA

4.1. Aurreko ataletan jasotako betebeharrak guztiez eta barne arauditik eratorritan direnez gain (barne araudia, instalazioen araudia, etab.), enplegatuek Kode honetako balio eta printzipioekin bat datorren portaera izango dute haien arteko harremanetan, eta jarraian aipatzen diren kolektiboekin, zehazki:

4.1.1. Enplegatuen arteko harremana:

4.1.1.1. Pertsona bakar bat ere ezin izango da bidegabeki tratatu, diskriminatu, faborea eman, jazarri, edo baztertu, bere arraza edo jatorri etniko, azaleko kolore, nazionalitate, erlijio sinesmen, ideologia, sexu, adin, konstituzio fisiko, itxura edo sexu orientazioagatik. Norabide horretan, enplegatuek eta Administrazio Kontseiluko kideak, sexu jazarpen kasuetan, edozein modalitate dela, aplikagarria den barne protokoloaren xedapenen agindupean egongo dira. Duintasunerako eskubidea, tratu berdintasunerako eskubidea, diskriminaziorik ezerako eskubidea eta gainerako funtsezko eskubideak errespetatuko dira, eta inolako kasutan ez dira onargarriak izango baztertzaitzat jo litezkeen jokabideak, edo jazarpen edo xaxatzekotzat jo litezkeenak, edozein jitetakoak direla ere, lan eremuan, edo, kasuan kasu, REALAREKIN eta/edo FUNDAZIOAREKIN izandako lan harremanean.

4.1.1.2. REALAREN barruan eta hirugarren pertsonetikiko harremanetan, diskriminazioaren eta edozein motatako jazarpen egoeran babesa jasotzeko eskubidea dute guztiek.

4.1.1.3. REALAK espero du bere enplegatuek zuzenak izatea eta errespetuz jokatzeko lankideekiko eta hirugarrenekiko harremanetan, jarraibide hauek

kontuan hartzeko erantzukizuna enplegatuetako bakoitzaren ardura izanik.

4.1.1.4. Zentzu horretan, REALAREN jarduerak helburu hauek ditu:

- a) Konfiantzan, zintzotasunean eta zuzentasunean oinarritutako lan harremanak ezartzea.
- b) Oinarrizko giza balio, jarrera eta jokabideekiko errespetuz jokatzeko.
- c) Enplegatuen intimitatea errespetatzea.
- d) Enplegatuen arteko kidego sentipena sustatzea.
- e) Prestakuntzaren aurrerabide etengabea sustatzea eta trebetasun profesionalak bultzatzea.
- f) Sustapen profesionalak eskaintzea soil-soilik langile bakoitzaren merituak aintzat hartuz.
- g) Aparteko orduen kopurua arrazoizko maila batera mugatzea.
- h) Lan baldintza seguru eta osasungarriak sortzea enplegatu guztientzat.
- i) Enplegatuek ordezkariak erakundeak sortzeko eta sindikatuetara afiliatzeko (edo ez afiliatzeko) duten eskubidea errespetatzea (betiere, eskubide hau libreki gauzatzen bada), eta erakunde hauekin elkarrizketa eraikitzailea edukitzea.
- j) Enplegatu batek sindikatu batean afiliatuta egoteko, edo ez egoteko, duen eskubidea mugatzen duen jardunik ez egitea.
- k) Enplegatu guztiak errespetuz eta duintasunez tratatzea, eta ez onartzea inolako *mobbing*, jazarpen edo gehiegikeriarik.

4.1.2. Abonatu eta akziodunekiko harremana:

4.1.2.1. REALEKO abonatu edo akziodunekin enplegatuek dituzten harremanetan, neutraltasun irizpide zorrotzen arabera jokatu dute enplegatuek, eta ezin izango diote haietako bati bereziki mesede egin, gainerakoan aldean.

4.1.2.2. Neutraltasun printzipioa ekitaldi sozial guztietara hedatuko da, eta bereziki, hauteskunde prozesuetara eta akziodunen batzarretara.

4.1.3. Behe kategorietako kirolariekiko harremana:

4.1.3.1. Kode honetan jasotako balio eta printzipioekiko mendetasun zorrotzez jokatu dute enplegatuek kirolari hauekiko jokabidean.

4.1.3.2. Adingabeei dagokienez, jaso behar duten babes bereziaz jabetzen da REALA, pertsona eta kirolari bezala modu egokian garatu ahal izan daitezkeen. Horregatik, eta aplikagarria den indarreko barne protokoloaren arabera, edozein sexu gehiegikeria edo jazarpen galarazteko arreta handiz jokatu da, kolektibo honetako kirolariei ikuskapen eta babes berezia emanez. Kode Etiko honen eraginpeko pertsona guztiek adingabeak babesteko araudiak betetzeko ardura zorrozki beteko dute, Harrobiko

beheko kategorietan sartzeko prozesuetan, baita haien prestakuntza eta garapenean ere.

4.1.4. Komunikabideekiko harremana:

4.1.4.1. Printzipio orokor gisa, enplegatuek ez dute harremanik izango komunikabideekin REALAREKIN zuzenean edo zeharka harremana duten gaiari buruz, ez bada REALEKO Komunikazio Arloko Zuzendaritzak berriaz gaitu dituela bozeramale gisa, edo berriazko baimena jaso dutela.

4.1.4.2. Talde baten, edo talde baten zati baten, edo pertsona jakin baten aurkako gorrotoa, etsaitasuna, diskriminazioa edo indarkeria zuzenean edo zeharka indartzen, sustatzen edo deitzen dituen adierazpenik ez dute egingo Kode Etiko honen eraginpeko pertsonen komunikabideetan, arrazoi hauek tarteko: talde bateko kide izateagatik, arrazoi arrazistagatik, antisemitagatik edo ideologia, erlijio edo sinesmenegatik, familia egoeragatik, haien kideak etnia, arraza edo nazio batekoak izateagatik, jatorri nazionalagatik, sexuagatik eta sexu orientazio edo identitateagatik, genero arrazoiengatik, gaixotasunagatik edo ezgaitasunagatik.

4.1.5. Beste jardun batzuk:

4.1.5.1. Berriaz debeku dira, beste jardun mota batzuen artean, REALEKO enplegatuek eta zuzendaritzako kideek zuzenean edo zeharka onura lortzeko aukera ematen dutenak, izan ekonomikoa edo beste mota batekoa, REALAK antolatzen dituen ekitaldietako informazioa edo sarbidea izateagatik, bereziki beronek parte hartzen duen kirol apustuak edozein generotan izena emanez, edo REALAK parte hartzen duen edozein txapelketarako sarrerak, gonbidapenak, abonua edo paseak birsalduz, edo kirol ikuskizunetara edozein pertsona iruzur bidez sartzea erraztuz.

5. ENTRENATZAILEEN PORTAERA

5.1. Entrenatzaileak portaera eredu dira, eta jakin behar dute haien hitzek eta ekintzek taldea osatzen duten kirolariengan eragin handia dutela. Horregatik, jokoaren espiritutik eratorritzen diren balioen eta jokabide etikoaren jarraikortasuna hartu behar dute ardura nagusitzat.

5.2. Entrenatzaileek bereziki ondoren aipatzen diren printzipioak jarraituz jokatu beharko dute:

- a) Pertsona bakoitzaren eskubideak, duintasuna eta balioak errespetatu behar dituzte.
- b) Kirolari bakoitzaren ongizatea eta segurtasuna beste edozeren gainetik jarri behar dute.

- c) Zuzendaritza organoek ezarritako ildoak bete behar dituzte.
- d) Entrenatzaileek lan harreman egokia garatu behar dute kirolari bakoitzarekin, elkarrekiko konfiantzan eta errespetuan oinarrituta.
- e) Entrenatzaileek ez dute egokia ez den eraginik izan behar edonolako onura pertsonala edo saria jasotzeko.
- f) Entrenatzaileek kirolariak animatu eta gidatu behar dituzte haien portaeraren eta errendimenduaren erantzukizuna onartzera.
- g) Entrenatzaileek ziurtatu behar dute zuzentzen edo defendatzen dituzten jarduerak jokalarien adin, heldutasun, esperientzia eta gaitasunerako egokiak direla.
- h) Entrenatzaileak espezialista guztiekin (esaterako, mediku eta fisioterapeutak) lankidetzan aritu behar dute kirolarien ongizatea bermatzeko.
- i) Ez dute onartuko joko arauak eta araudiak haustea, ezta debekatutako edo desgokiak diren teknikak erabiltzea ere.
- j) REALAREN heziketa helburuak eta egitekoak sustatu behar dituzte entrenatzaileek, eta balioak eta printzipioak auzitan jartzea eragotzi.
- k) Entrenatzaileek joko arauak bete behar dituzte. Ez dituzte abantaila bidegabeak bilatu behar, kirolaren kontrako portaerak sustatuz edo arerioarekiko abantaila ilegalak onartuz.
- l) Entrenatzaileek ez dute onartuko suspergarriak edo substantzia ilegalak erabiltzea kirolarien errendimendua hobetzeko.

6. JOKALARIEN PORTAERA

- 6.1. Jokalariak dira REALEKO aktore nagusiak. Taldeak irabaz dezan jokatzeko dute. Hala ere, REALAK joko garbiaren eta besteekiko errespetuaren kirol espiritua sustatzen du, guztiak ere kiroleko funtsezko printzipioak.
- 6.2. Atal hau garrantzi bereziko kirol lehiaketetan parte hartzen duten kirolari profesionalei buruzkoa da. Hala ere, ondoren jarraian zehazten diren oinarrizko printzipioak REALEKO kirol maila eta modalitate desberdinetako kirolariei aplikatu ahal zaizkie.
- 6.3. Jokalariak ildo hauei men eginez jokatu beharko dute:
 - a) Lege, arau eta joko garbiaren espiritua ezagutu eta betetzea, baita aplikagarriak diren lehia arau guztiak ere.
 - b) Kirol gaitasunak garatzeko ahal duten guztia egitea, trebeziari, teknikari, taktikari eta erresistentziari dagokienez.
 - c) Kirol lehiatan ahal den errendimendurik onena lortzeko ahaleginik handiena egitea.
 - d) Gainerakoentzat erdugarri izaten saiatzea, bereziki kirolari gazteentzat eta Klubeko jarraitzaileentzat.
 - e) Arerioen egoera fisikoa zaintzea, indarkeria eta joko gogorra saihestea, eta zauritutako lehiakideei laguntzea.

- f) Arerioak momentu oro errespetuz tratatzea, jokoaren emaitza edozein dela ere.
- g) Arrakasta eta porrota, garaipena eta galera berdin-berdin onartzea.
- h) Partidetan eta entrenamenduetan kiroltasunez jokatzeko gainerako parte hartzaileekin, joko arauak ezagutzea eta ikustea, eta arbitroen erabakiak onartzea.
- i) Entrenatzailearen jarraibideei men egitea, betiere Kode honen gidalerroen kontra ez badoaz.
- j) Gaitasun fisikoak handitzeko edo lehiaketetako emaitzak aldatzeko substantzia debekatuen kontsumoari eta dagokien araudietan debekatutako teknikak erabiltzeari uko egitea.
- k) Garrantzi bereziko proba, partida edo lehiaketa baten emaitza nahita eta iruzur eginez aurretiaz zehaztea edo aldatzea helburu duen edozein proposameneri uko egitea.

7. HORNITZAILEEN PORTAERA

- 7.1. REALAK uste du bere hornitzaileak ezinbestekoak direla finkatutako hazkunde eta hobekuntza helburuak erdiesteko. Hori dela eta, hornitzaileekiko harremanak konfiantza, errespetua, gardentasuna eta bi aldeek onura bilatuz eduki behar dira, eta hori guztia aldeek hitzartutako kontratu baldintzekiko errespetu osoz.
- 7.2. Hornitzaileen hautaketa prozesuetan eta kontratazioan parte hartzen duten REALEKO profesional guztiak inpartzialtasunez, objektibotasunez eta gardentasunez jokatzeko betebeharra dute, momentu oro Erosketa eta Ordainketa Kontuen Politika errespetatuz, kalitate eta kostu irizpideak aplikatuz, eta une oro interes gatazkak saihestuz.
- 7.3. Kontratatu diren hornitzaileek Kode honetan ezarritako printzipio etikoak eta oinarritzko jokabide irizpideak errespetatu eta onartu beharko dituzte, edo gutxienez Tratatu, Paktu eta Hitzarmen garrantzitsuenetan jasotako nazioarteko estandar etikoak. Hau da, REALAK espero du bere hornitzaileek Erakundearen balio berberak partekatzea eta aplikagarriak diren lege guztiak betetzea, Kode Etikoan jasotako printzipio eta balioez gain.
- 7.4. Enplegatuen betebeharra da enpresa eta partikularrekin merkataritza harremanik ez izatea, jakinez gero aurreko atalean aipatutako arauak ez dituztela betetzen.

8. ARRISKU EGOERAK PREBENITZEKO BARNE NEURRIAK

Jarraian jarraibide batzuk ezartzen dira delitu jakin batzuk prebenitzeko, zeintzuegatik REALA bera edo FUNDAZIOA penalki kondenatuak izan litezkeen, pertsona juridikoarentzako beste delitu arrisku batzuk ere egotea galarazi gabe, baita departamentu bakoitzean ezarritako barne neurriak egotea galarazi gabe ere, funtzioak betetzean egunerokotasunean egon daitezkeen delitu arriskuen kopuruaren arabera.

8.1. **Betearazpena ez gauzatzea eta zigortzeko moduko kaudimengabezia, eta Ogasun Publikoaren eta Gizarte Segurantzaren kontrako delituak**

Berariaz debekatzen da kontabilitatea aldatzea, honetarako:

- (i) Kontabilitate bikoitza eramatea, gezurrezko oharra hartzea edo beharrezkoak diren oharra ez jasotzea.
- (ii) Ogasunari edo Gizarte Segurantzari zergak ordaintzea saihestea.
- (iii) Ondasunak ostentzea, edo zigortzeko moduko kaudimengabezia dakarren edozein jokabide.
- (iv) Diru laguntzak lortzea eskatutako baldintzak faltsutuz.

8.2. **Iruzurrak**

Debeku da gure akziodun, abonatu, zale, bezero eta hornitzaileei informazio faltsua edo engainagarria ematea. Momentu bakoitzean egokiena den bidetik helaraziko zaie haiei informazioa.

8.3. **Jabetza intelektualarekin, Merkatuarekin eta Kontsumitzaileekin lotutako eskubideak**

8.3.1. Merkatuari eta Kontsumitzaileei buruzkoak

Enplegatuek sekretu profesionala gorde behar dute haien jardura profesionalaren ondorioz ezagutzen dituzten datu eta informazio ez publikoen inguruan, izan bezeroei buruzkoak edo haiengandik datozenak, edo izan beste lankideenak, zuzendaritzako kideenak, edo hirugarrenenak.

Produktu edo zerbitzuen eskaintzan edo publizitatean debeku da alegazio faltsuak egitea, edo horiei buruzko gezurrezko ezaugarriak adierazten dituztenak, bazkide, bezero eta zaleei kalte larri eta agerikoa sorrarazi ahal badie.

8.3.2. Partikularren arteko trafikoa eta kirol apustuak

Partikularren arteko trafikoa: Enplegatuek agintari publikoekin, hornitzaileekin eta bezeroekin dituzten harremanetan abantailak eskaini eta emateari, eta abantailak eskatu eta jasotzeari dagokienez, 11.1. eta 11.2. ataletan xedatutakoaren arabera jokatu da. Kirol apustuei dagokienez, berriz, 10.6. atalean xedatutakoaren arabera jokatu da.

8.3.3. Jabetza intelektualari buruzkoa

REALEKO edo FUNDAZIOKO enplegatuek jabetza intelektuala eta industrialaren errespetatuko dituzte ikastaro, proiektu, programa edo sistema informatikoetan; ekipo, eskuliburu eta bideoetan; eta ezagutza, prozesu, teknologia, know-how, eta, oro har, enpresan garatutako gainerako lanetan, baita hirugarren batzuen denean ere, haien edo hirugarrenen jardura profesionalaren ondorio gisa. Beraz, jardura profesionala bete bitartean erabiliko dira horiek, eta itzultzeko eskatutakoan, material guztia bueltatu beharko da.

REALAREN edo FUNDAZIOAREN irudi, izen edo markak ez dira erabiliko, ez bada jardura profesionalaren garapen egokirako.

8.4 **Kapitalak zuritzea**

Berariaz debekatzen dira honako jarduera hauetako batzuk:

- (i) 2.500 €-tik gorako balioa duten entregak dirutan, edo tresna negoziagarrien bidezko ordainketa, ordaintzailearen egiazko identitatea agertzen ez bada.
- (ii) Paradisu fiskaletan edo arrisku lurraldeetan helbideratuak dauden pertsona fisiko edo juridikoez esku hartzen duten operazioak.
- (iii) Helbide ezezaguna duten edo soilik korrespondentzia ezaguna duten (adibidez, posta kutxa, partekatutako egoitzak, bulego profesionalak, etab.), edo balizko datu faltsuak edo egiazkoak ez izateko arriskua duten datuak dituzten pertsona fisikoek edo juridikoez esku hartzen duten operazioak.
- (iv) Delituengatik kondenatuta edo prozesatuta dauden pertsonak egindako operazioak, edo delitu jarduerekin ustez harremana dutela susmoa izanez gero edo hori agerikoa edo publikoa izanez gero, baldin eta jarduera horiek legez kontrako aberastasuna badakarte eta zuritze delituaren azpikotzat jotzen badira, bai eta aurrekoekin erlazionatuta dauden pertsonak egindako operazioak ere (esaterako, familia loturengatik, lotura profesionalengatik edo jatorrizkoengatik, non bat datozen helbidean edo ordezkari zein eskudunetan).
- (v) Pertsona juridikoez parte hartzen duten operazioak, berriki eratutakoak, baldin eta euren zenbatekoa ondarea baino handiagoa bada.
- (vi) Pertsona juridikoez parte hartzen duten operazioak; betiere, ez badirudi harremanik dagoenik operazioaren ezaugarrien eta enpresa erosleak egindako jardueraren artean, edo enpresa erosleak inolako jarduerarik egiten ez badu.
- (vii) Fundazioek, Kultur Elkarteek eta Astialdikoek, eta oro har, irabazi asmorik gabeko erakundeek esku hartzen duten operazioak, baldin eta operazio horien ezaugarriak ez badatoz bat erakundearen helburuekin.
- (viii) Espainian erregistratuta egonagatik, batez ere atzerriko herritarrek edo Espainian bizi ez direnek osatutako pertsona juridikoez esku hartzen duten operazioak.
- (ix) Pertsona fisikoek edo juridikoez esku hartzen duten operazioak, baldin eta jabeek, edo hurbileko senitartekoez, postu politiko nagusiak, goi karguak edo antzekoak bete edo betetzen badituzte oro har demokratikoak ez diren herrialdeetan.

8.5 **Eroskeria eta ustelkeria politikoa**

11.1. atalean xedatutakoari kalterik egin gabe, debekatuta dago zeinahi ordainketa, komisio, opari edo sari ematea, agintzea edo eskaintzea edozein agintariri, funtzionario publikori edo enpresa zein erakunde publikoetako enplegatu edo zuzendariri, izan euren zuzenean edo eurenkin lotura duten pertsonen edo elkarten bidez zeharka, hartzailea funtzionarioa edo enplegatu publikoa bada, edo berak adierazitako beste norbait, izan nazionala, izan beste herrialde batekoa. Muga horretan ez dira barne hartzen:

- (i) Ohiko erabileretan, erabilera sozial eta kortesiazkoetan arrazoizkotzat jotako mugak gainditzen ez dituzten gonbidapen normalak.

(ii) Arrazoi jakin eta berezi batzuentatik noizean behin emandako arretak, baldin eta ez badira eskudirutan, eta neurrizko zein arrazoizko mugak gainditzen ez badituzte.

(iii) Balio txikiko propaganda objektuak.

8.6 **Kalte informatikoak**

Espresuki debekatuta dago besteren datu informatikoak, programa informatikoak edo dokumentu elektronikoak ezabatzea, galtzea, hondatzea, aldatzea, kentzea edo eskurazin uztea zeinahi bitartekotatik eta inolako baimenik gabe.

9. INFORMAZIOAREN TRATAMENDUA

9.1. Zehaztasuna eta egiazkotasuna:

8.1.1. Komunikazio eraginkor eta irekiak ezinbestean eskatzen du txosten zehatz eta egiazkoak egitea. Informazioa erregistro publiko batean txertatu behar bada zein ez, edo erakunde ofizial bati eman behar bazaio zein ez, Kode honen eraginpeko pertsona guztiak derrigortuta daude txosten horiek osotuak eta zehatzak izango direla ziurtatzera.

9.2. Konfidentzialtasuna:

9.2.1. Konfidentzialtasuna gorde behar da informazioa konfidentziala bada edo oraindik argitaratu gabe baldin badago. Hornitzaileei, langileei, kolaboratzaileei, eragileei, aholkulariei eta bestelako hirugarrenei buruzko informazio ez publikoa ere babestu egin behar da, legezko eta kontratuzko baldintzekin bat etorrira.

9.2.2. Konfidentzialtasuna gordetzeko betebeharrak indarrean jarraituko du, baita dagokion harremana amaitzen denean ere.

9.3. Babesa eta segurtasuna:

9.3.1. Interneterako sarbidea, informazioaren mundu mailako trukea eta merkataritza elektronikoak funtsezkoak dira REALARENTZAT. Alabaina, komunikazio elektronikoak hainbat arrisku ditu datuen segurtasunaren eta pribatutasunaren babesari dagokionez.

9.3.2. Horrenbestez, helburu jakin, argi eta legezkoetarako beharrezkoa denean soil-soilik eskuratu, prozesatu edo erabiliko dira datu pertsonalak. Gainera, datu pertsonalak modu seguruan gorde behar dira, eta horiek transmititzean, neurri egokiak hartu behar dira. Datuen kalitatean eta baimendu gabeko sarbideei aurre egiteko babes teknikoan maila gorena bermatuko da. Datuen tratamenduak gardena izan beharko du eraginpeko guztientzat, eta datuen tratamendurako eta zuzenketarako horiek dituzten eskubideak bermatu beharko dira; eta, hala badagokio, baita datuei uko egiteko, eta datuak blokeatzeko edo ezabatzeko eskubideak ere.

9.4 Posta elektronikoa soil-soilik lan helburuetarako eta eskatutako lanak gauzatzeko erabiliko da; eta debekatuta egongo da zeinahi eratako helburu pertsonaletarako erabiltzea.

REALAK edo FUNDAZIOAK bere enplegatuen edo kontseilarien esku jartzen dituen posta elektrikoko helbideak lan helburuetarako eta soilik horietarako erabiliko dira, eta ez dira, inola ere, posta elektronikoko pertsonalak izango, bertan jasotako informazioaren konfidentzialtasuna bermatzeko. Era horretan, korporazio sareko terminalen artean bidalitako barne mezu elektronikoak, edo beste sare publiko zein pribatu batzuetatik jasotako edo horietara bidalitako kanpo mezu elektronikoak soilik lan helburuetarako bidali edo jasoko dira.

Horrenbestez, enplegatuek eta zuzendariak posta elektronikoko helbideak edo fitxategi informatikoak erabiltzearena lan jardueratzat joko da, eta lanorduetan egin beharko dute. Horren ondorioz, enpresaburuak daukan kontrol eta zaintzarako ahalmenari buruz Langileen Estatutuaren 20. artikuluan aurreikusitako lan arloko legeriarekin bat etorrira, REALAK edo FUNDAZIOAK aukera izango du enplegatuek eta zuzendariak jasotako edo igorritako mezu elektronikoetara edo fitxategi informatikoetara sartzeko eta horiek irakurtzeko, kopiatzeko eta zabaltzeko eskubidea egikaritzeko, helburu soziala osatzen duten jarduerak kontrolatzeko edo horien segurtasun helburuetarako.

10. INTERES GATAZKA

10.1. REALEKO edo FUNDAZIOKO parte izanik, edo aukeratu edo izendatu aurretik, Kode honen eraginpeko pertsonak ezagutarazi egin beharko dituzte gauzatuko dituzten funtzioekin edo onartuko dituzten eskumenekin erlazionatuta egon litezkeen interes guztiak.

10.2. Kode honen eraginpeko pertsonak saihestu egin beharko dute interes gatazka sor lezakeen egoera oro, non interes pribatuak edo pertsonalak egongo diren, betebeharrak modu independentean betetzeari kalte egingo diotenak. Oro har, eskumena sortzen duten egoeratzat joko dira REALAK edo FUNDAZIOAK egiten dituen jardueren parekoak gauzatzea dakartenak, norbere onurarako zein hirugarrenen onurarako; eta interes gatazka sortzen duten egoeratzat joko dira, bestalde, enplegatuaren interes pertsonal edo profesionalek, edo horien senitartekoen edo hurbileko nukleokoen interesek, REALAREN edo FUNDAZIOAREN interesen aurkako zeinahi eragin izan dezaketen egoerak. Eta interes pribatu edo pertsonaltzat joko da, hain zuzen, norbere, senitartekoen, lagunen edo ezagunen onura ekarriko duen abantaila oro.

10.3. Hauek dira interes gatazka dakarten ohiko arloak:

10.3.1. Langileak kontratatzeko eta hirugarrenekin negozio harremanak izateko hartutako erabakiak: REALAREKIN edo FUNDAZIOAREKIN era guztietako kontratuak proposatzeko, baimentzeko edo onartzeko eskuduntzak dituzten subjektu pasiboek –kontratuak lan arlokoak edo merkataritzakoak izanda, eta REALAREN edo FUNDAZIOAREN

jabetzako ondasunei dagozkienak, izan obra, zerbitzu edo beste zeinahi hornidurazkoak– ez dituzte euren ezkontideen, arbasoen edo ondorengoen eta bigarren mailara arteko zehar ahaideen alde gauzatuko, izan odol harremanagatik edo ezkontza ahaidetasunagatik, ez eta enpresen edo enpresa taldeen alde ere, non batzuek zein besteek edo enpleguak berak kontrola edo eragin nabarmena duten, zuzenean edo zeharka, izatez edo eskubidez. Hirugarrenetikiko negozio harremanak irizpide objektiboetan oinarrituta egingo dira; hala nola prezioan, kalitatean, maila teknologikoan... oinarrituta. Kontratu bat gauzatzeak, eta hirugarrenekin negozio harreman batekin jarraitzeak edo hori amaitzeak ez dute egon behar interes edo harreman pertsonalen edo abantaila pertsonalen eraginpean.

- 10.3.2. Hornitzaileak helburu pertsonaletarako kontratatzea: Enplegu batek eskaera pertsonal bat edo kontratu bat egin nahi badu lehenik ere REALAREKIN edo FUNDAZIOAREKIN negozio harremana duen pertsona edo erakunderen batekin, eta enplegu horrek erakundearekiko negozio harremanean zuzeneko edo zeharkako eragina izan badezake, enpleguak horren jakinarazpena igorri beharko dio REALEKO Giza Baliabideen Sailari, eta haren baimena jaso, ezer kontratatu aurretik.
- 10.3.3. Enplegutuen zerbitzuak helburu pertsonaletarako erabiltzea: Erakundeko zuzendaritzako kideek edo enplegutuek ezingo diote etekina atera euren egoerari helburu pertsonalekin beste enplegu batzuen zerbitzuez gozatzeko.
- 10.3.4. Kode Etiko honen 4.1.5. atalarekin bat etorruta, Kode Etiko honetako subjektu pasiboek interes gatazkatzat jo litezkeen egoerak saihestu beharko dituzte, eta kasu guztietan, REALAREN edo FUNDAZIOAREN interesei beste zeinahi interesen ginetik lehentasuna emanaz jokatu dute. Interes gatazka sortuz gero, eraginpeko pertsonak halaxe jakinarazi beharko du, eta uko egingo dio erabaki prozesuan parte hartzeari edo eragina izateari. Kode Etiko honetako subjektu pasiboek gauzatutako ezein jardunek ezingo ditu arriskuan jarri Erakundearen interesak, ez zuzenean ez zeharka, ez eta Erakundearen irudi onean eragin edo Kode Etiko honen oinarrian dauden printzipio profesionalak edo balio etikoak nabarmen utzi ere.
- 10.3.5. REALEKO eta FUNDAZIOKO profesionalek Giza Baliabideen Sailari jakinarazi beharko diote lan ordutegiaren barnean beste zeinahi lan jarduera, jarduera profesional, enpresarial, publiko edo akademiko gauzatuko dutela, norbere kontura edo besteren kontura, ordainsariduna zein ez, baldin eta jarduera horiek eragina izan badezakete bakoitzaren funtzioak gauzatzean, edo jarduera horien bateragarritasunak mugak edo lege baldintzak izan baditzake.

Oro har, profesionalak ezingo dute jarduera horietan REAL SOCIEDAD edo FUNDAZIOA izena erabili, eta, bien bitartean, REALEKO edo FUNDAZIOko enplegatuek jarduera horien balioak errespetatzeko konpromisoa hartuko dute.

- 10.3.6. Bereziki, REALAREN edo FUNDAZIOAREN bezeroekiko harremanari dagokionez, bietako profesionalak independentzia izango dute beti, eta euren jardun profesionalean ez dute inolako eraginik izango bezeroekiko lotura ekonomikoek, familiarrek edo adiskidetasunezkoek, ez dadin zalantzan jarri euren inpartzialtasuna eta objektibotasun profesionala, edo Erakundearen barne prozedurena, ez eta nazioan edo nazioartean jarduera horren esparruan antola litezkeen lehiaketena edo lizitazioena ere.
- 10.4. Kode Etiko honetako subjektu pasiboek interes gatazkatzat jo litezkeen egoerak saihestu beharko dituzte, eta kasu guztietan, REALAREN edo FUNDAZIOAREN interesei beste zeinahi interesen gainetik lehentasuna emanaz jokatu dute. Interes gatazka sortuz gero, eraginpeko pertsonak halaxe jakinarazi beharko du, eta uko egingo dio erabaki prozesuan parte hartzeari edo eragina izateari.
- 10.5 REALEKO eta FUNDAZIOKO enplegatuek ez dute izango Klubeko enplegatu gisa duten lanarekin edo/eta Klubeko kide izatearekin lotutako inolako portaera publiko edo pribaturik, ez eta REALAREN eta FUNDAZIOAREN irudi onaren, ospearen eta sonaren aurka egingo duenik ere.
- 10.6 Beste jardun batzuk: Berariaz debeku dira, beste jardun mota batzuen artean, REALEKO edo FUNDAZIOKO enplegatuek zuzenean edo zeharka onura lortzeko aukera ematen dutenak, izan ekonomikoa edo beste mota batekoa, REALAK antolatzen dituen ekitaldietako informazioa edo sarbidea izateagatik, bereziki beronek parte hartzen duen kirol apustuetako edozein generotan izena emanaz, edo REALAK parte hartzen duen edozein txapelketetako sarrerak, gonbidapenak, abonua edo paseak birsalduz, edo kirol ikuskizunetara edozein pertsona iruzur bidez sartzea erraztuz.
- Era berean, erabat debeku da partida edo txapelketa bateko emaitza aurretiaz zehazteari begirako edozein jardun, prezio, larderia edo akordioen bidez. Kirol lehiako iruzurra edo amarrua REALAREN balioen eta kirol espirituaren aurka doa guztiz. Hori dela eta, gogortasun handienarekin jazarri eta zigortuko da, dopina barne, kirol errendimenduaren aizuntzea eta kirolarien osasunerako arriskua dakarren heinean.
- 10.7 REALEKO eta FUNDAZIOKO enplegatuek euren kargua edo REAL SOCIEDAD marka, haren sinboloak eta taldearen zein jokalarien irudia sare sozialetan eta webguneetan modu pertsonalean erabiltzea saihestuko dute. Modu pertsonalean ere, baliabide horietan edo beste batzuetan argitaratzeko, REALEKO eta FUNDAZIOKO enplegatuek ez dute Klubaren balioen eta politikaren aurkako mezurik idatziko, adingabeen babesari eta lehiaketako

iruzurraren, dopinaren, indarkeriaren, arrazismoaren, xenofobiaren eta kiroleko intolerantziaren aurkako borrokari dagokienez.

11. USTELKERIAREN AURKAKO POLITIKA

11.1. Abantailak eskaintzea eta ematea

11.1.1. Kode Etikoaren eraginpeko pertsonak ez diote, zuzenean edo zeharka, dirua, enplegu agintza edo balioa duen zeinahi objektu opari moduan eskainiko, aginduko, emango edo baimenduko administrazio publikoarekin erlazionatuta dagoen edo sektore pribatuan diharduen zeinahi pertsonari edo erakunderi (REALAREN edo FUNDAZIOAREN bezeroak edo hornitzaileak), onura bidegabeak lortzeko helburuarekin.

11.1.2. Horrek esan nahi du ezin dela ezein eskaintza, agintza edo opari egin, legez kontrako abantaila bat edo abantaila pertsonal bat lortzeko eragin desegokia izateko helburuarekin.

11.1.3. Ohiko kortesia ohituretako eta erabileretako objektuak baino ezingo dira eskaini edo eman, eta, betiere, jardunbide egoki enpresarialaren baitako baterako mugekin. Honako opari hauek ez dituzte gainditzen ohiko kortesia ohiturak edo erabilerak:

- a) balio sinbolikoa edo txikia dutenak;
- b) bere jarduerekin erlazionatutako ekintza bat egikaritzean edo ez egitean eraginik ez dutenak, edo zuhurtziari dagozkion jarduerak;
- c) bere betebeharrak ez betetzea ez dakartenak;
- d) onura desegokiak ez dakartzatenak;
- e) interes gatazkarik sortzen ez dutenak.

11.2. Onurak eskatzea eta onartzea:

11.2.1. Kode honen eraginpeko subjektu pasiboek ezin dute REALEAN edo FUNDAZIOAN daukaten posizioa baliatu abantaila agintzak eskatzeko, galdatzeko, onartzeko, eskuratzeko edo jasotzeko, ohiko kortesia ohituretako eta erabileretako objektuen salbuespenarekin. Ez da onartu behar beste zeinahi opari edo objektu.

11.3. Komisioak:

11.3.1. Debekua da Kode honen eraginpeko pertsonak komisioak edo komisioak jasotzeko agintzak onartzea, izan norbere onurarako, bitartekoen onurarako edo horiekin erlazioa dutenen onurarako, Kode honetan definitzen diren moduetan eta euren funtzioak egikaritzean gauzatzen diren era guztietako negozioetan.

11.4. Ekarpn politikoak:

11.4.1. REALAK ez du inolako ekarpen politikorik egingo; alegia, ez die dohaintzarik egingo politikariei, alderdi politikoei edo erakunde politikoei, arestian ohiko kortesiazkotzat jotakoez harago.

11.5. Babesletza:

11.5.1. REALAK edo FUNDAZIOAK publizitatea lortzeko egin ditzakeen babesletzak ez dira dohaintzat hartuko. Babesle lana egiteak esan nahi du ekimen edo jardueraren bat babestea edo finantzatzea, publizitate helburuekin.

11.5.2. Babesletza ekarpen guztiek gardenak izan beharko dute, idatzizko akordio baten arabera, legezkoak diren enpresa helburuetarako, eta, betiere, ekimenaren antolatzaileak emango duen ordainarekin proportzionalak. Ezingo dira ekarpenak agindu, eskaini edo egin onura desegokiak ziurtatzeko.

11.6. Dohaintzak:

11.6.1. Dohaintza guztiek gardenak izan beharko dute, eta ezinbestekoa izango da hartzailearen nortasuna, dohaintzarentzat aurreikusitako erabilerak eta arrazoiak zehaztea.

11.6.2. Ez dira dohaintzat hartuko enpresa interesak dituzten erakundeetako asoziazio kuotak.

12. REAL SOCIEDADEN JABETZAREN ERABILERA

12.1. Kode honen eraginpeko pertsonak zuzen jokatu beharko dute REALAREN instalazioak erabiltzean, bai eta bertako ondasunak (ukigarriak zein ukiezinak), lanerako tresnak, materialak eta eskuragarri dauden gainerako objektuak erabiltzean ere. Horiek guztiak helburu duten jarduerarako eta soilik horretarako erabiliko dira, eta ez zaie erabilera pertsonala eman behar. Alabaina, salbuespenak egon daitezke, baldin eta aipatutako instalazioen eta objektuen erabilerak...

- a) ez badu harremanik legez kontrako jarduerekin,
- b) ez badu sortzen interes gatazkarik, edo
- c) ez badu kostu gehigarri handirik sortzen, ez badu jarduera eteten, edo ez badu erakundearentzat kaltegarria den bestelako eraginik; esaterako, enplegatuei esleitutako betebeharrak eragozteak.

12.2 REALAK eta FUNDAZIOAK euren profesionalen esku jartzen dituzte jarduera gauzatzeko beharrezkoak dituzten baliabideak, eta horiek helburuak lortzeko baino ezingo dira erabili; beraz, ezingo zaie REALARENTZAT edo FUNDAZIOARENTZAT kaltea ekar dezakeen erabilera pribaturik edo desegokirik eman.

Profesional bakoitza da, beraz, Erakundeak emandako baliabideak eta aktiboak zuzen erabiltzearen eta babestearen erantzulea; eta horrelakotzat joko dira,

besteak beste, Erakundearen instalazioak, altzariak, finantza baliabideak, informazioa, jabetza intelektuala, softwarea, markak, domeinuak, ekipoak eta REALAK eta FUNDAZIOAK xedatutako gainerako elementu denak. Horiek guztiak arlo profesionalean baino ezingo dira erabili, sekula ez helburu pertsonaletarako.

- 12.3 REALEKO profesionalak eta Erakundearekin nolabaiteko lotura duten pertsona guztiek ezingo dute REALAREN jabetzako aktiboak, produktuak, salgaiak, tresnak eta gainerako ondasun higigarriak eskuratu, ez eta horiek helburu pertsonaletarako erabili ere, dagokion arloko arduradunaren baimenik gabe.
- 12.4 Kode Etiko honetako subjektu pasiboak bereziki zorrotzak izango dira ordezkartza gastuetan; hala, oso zorrotz administratuko dituzte jatetxeetako otorduetako, bidaietako eta partidetarako gonbidapenetako gastuak, gastu horiek ezinbestekoa den minimora mugatuz eta, betiere, REALAREN edo FUNDAZIOAREN premiek eskatuta eginez.
- 12.5 Aurreko puntuak betetzeari kalterik egin gabe, Zubietako kirol instalazioetako erabiltzaileek indarrean den instalazioen eskuliburuko arauak bete beharko dituzte, Kode Etiko honetan jasotako printzipioen eta egindako gogoeten gehigarria den eta aplikatu beharrekoa den araudia baita.

13. KANAL ETIKOARI KOMUNIKATZEKO PROZEDURA

- 13.1. Kode Etikoa beteko dela bermatzeko, bertan jasotako betebeharrak eta aginduak beteko direla zaintzeaz arduratuko den organo bat eratuko da.
- 13.2. Organo horren osaera, eskumenak eta ezaugarriak araudi espezifiko osagarri batean landuko dira.
- 13.3. REALAK eta FUNDAZIOAK kanal bat (Kanal Etikoa) jartzen dute euren enplegatuen esku, Kode honetan xedatutako printzipioak urra ditzaketen jardunak edo portaerak modu konfidentzian jakinarazteko (compliance@realsociedad.eus), ezagutarazitako informazioaren konfidentziasuna bermatuko duen beste zeinahi komunikazio kanali kalterik eragin gabe.
- 13.4 Kode Etikoa urratzeko zantzuak hautemanaz geroz, ikerketa ofizial bat irekiko da. Ikerketa horrek egiaztatuko balu Kode hau urratu egin dela, kasu bakoitzean egoki jotako zigor neurriak hartuko lirateke.

14. DIZIPLINAZKO PROZEDURA

- 14.1 Kodea urratuz gero, laneko zigorrek edo aplikagarria den barne araudiarenak jar litezke, administrazio zigorrei edo zigor penalei kalterik eragin gabe.

- 14.2 REALEAN eta FUNDAZIOAN dagoen diziplina erregimena aplikatuko zaie Kode honen arlo subjektiboko pertsona guztiei. Enplegatuen kasuan, Langileen Estatutua aplikatuko zaie, bai eta aplikagarria zaien gainerako lan legedi guztia ere (Gipuzkoako ikuskizun eta kirol lokalen hitzarmen kolektiboa). Kirolarien eta lan erregimen berezia duten langileen kasuan, aplikagarria zaien eta indarrean dagoen lan legedian eta hitzartutako eta sinatutako barne araudietan xedatutakoa aplikatuko zaie.
- 14.3 Kanal Etikoarekin lotuta, laneko zigorra jasoko dute honako portaera hauek:
- (i) Kode honen urraketaren bat ez salatzea, nahiz eta horren berri izan.
 - (ii) Salaketa faltsuak egitea, hirugarren bati kalteak eragiteko asmoz.
 - (iii) Salaketaren bat jarri duen pertsona baten aurka portaera diskriminatzailea edo jazarpenezkoa edukitzea.

15. INDARREAN JARTZEA

- 15.1. Honako dokumentu hau aplikagarria izango da promulgatzen den egunaren hurrengo egunetik aurrera, eta indarrean egongo da harik eta aldatzen den arte edo atzetik datorren batek indargabetzen duen arte. Etengabeko jarraipena egingo zaio, aldian behin berrikusteko, eta une bakoitzeko baldintzetara egokitzen dela ziurtatzeko.

compliance@realsociedad.eus

www.realsociedad.eus